



Ordena zkia
Nº orden

PRUEBA DE ACCESO A CICLOS FORMATIVOS

HEZIKETA ZIKLOETARA SARTZEKO PROBA

ABRIL 2018 / 2018KO APIRILA

GOI MAILAKO ZIKLOAK / CICLOS DE GRADO SUPERIOR

ATAL KOMUNA / PARTE COMÚN

HIZKUNTZA / LENGUA

Abizenak
Apellidos _____

Izena
Nombre _____

Aukera
Opción A B C

N.A.N.

D.N.I. _____

IKASLEAREN SINADURA

Firma del alumno/a _____



MUNDUAN HIZKUNTZAK MILA

Hizkuntza eta kultur aniztasun handia dago munduan, baina gaur egun ezinbestekoak diren nazioarteko harreman ekonomikoek, politikoek, sozialek eta kulturek eragina dute eta gure ama-hizkuntzaz gain beste hizkuntza bat edo beste ikastera behartuak gaude. Baina zein dira beste herrialdeekin harremanetan jartzeko bereziki ikasten ditugun hizkuntzak?

Hamahiru hizkuntza nagusi dira, oro har, munduko biztanleen erdiak baino gehiagok mintzatzen dituenak eta munduan **zabaltzen** ari den kultura anglosaxoniarraren eraginez, ingelesa nagusitzen ari da nonahi. Fenomeno honek lurralde eta kultura ezberdineko pertsonen arteko komunikazioa errazten badu ere, hizkuntza horrek transmititzen duen kultura nork berean txertatzeko modua zaintzen ez bada, ondorio kaltegarriak sor ditzake.

Zenbait herrialdetan, bertako hizkuntza txikia delako eta berria erabilgarriagoa dela pentsatuta, bere hizkuntza **baztertu** egiten dute; ondorioz, hizkuntza hori desagertu egin da eta herri honek bere kulturaren eta izaeraren **sustraiak** galdu egin ditu.

Beste batzuetan, berriz, beren hizkuntza beste guztien gaineratik defendatu nahian, munduko beste hizkuntzei eta horien ekarpenei **ateak itxi** dizkiete, horrekin beren hizkuntzaren garapenari trabak ipiniz.

Baina bizitzako hainbat arlotan bezala, arlo honetan ere, egokiena erdiko bidea hartzea litzateke. Edozein kulturak eta hizkuntzak (handi edo txiki) besteek eskaintzen dizkieten alde onuragarriak ezagutzeko eta, onak badira, egokitu eta hartzeko prest egon behar du, baina beti ere, bere hizkuntza lantzen eta garatzen jarraituz, kultura eta hizkuntza guztiek leku eta **funtzio** bat baitute mundu honetan.

Horrela, Euskal Herrian belaunaldiz belaunaldi gugana iritsi arte milaka urtetan garatzen joan den euskara eta euskal kultura lantzen jarraitu behar dugu, gainerako komunitateek aberats gaitzaketela kontuan izanik eta guk ere haien munduari zerbait eman diezaiokegula ahaztu gabe.

Aitor Gereta



1.- Aukeratu zein den paragrafo bakoitzaren ideia nagusia hobekien jasotzen duen esaldia (lehenengoan, adibide gisa, negritaz zehaztu da): (1p)

1. paragrafoa:

- a. Ama-hizkuntzaz gain beste hizkuntza asko ikasi behar dira.
- b. Harreman ekonomiko, politiko, sozial eta kulturek eragina dute gure ama-hizkuntzan.
- c. Hizkuntza eta kultur aniztasun handia dago munduan.
- d. Gaur egun nazioarteko harremanetarako ez da aski ama hizkuntzarekin.**

2. paragrafoa:

- a. Gaur egun ingelera da nagusia nazioartean.
- b. Ingelera ikasteak nazioarteko harremanak erraztuko dizkigu.
- c. Nazioarteko hizkuntza eta kultura gureganatzeko prozesua kontu handiz egin behar dugu.
- d. Munduko biztanle ia gehienek hamahiru hizkuntza hitz egiten dituzte.

3. paragrafoa:

- a. Zenbait herrialdetan ez dute beraien betiko hizkuntza gehiago behar izan.
- b. Nazioarteko hizkuntza erabilgarriagoa da bertako hizkuntza baino.
- c. Uste okerrekarri dute zenbait herrikerri beraien hizkuntza, kultura eta sustraiak galtzea.
- d. Garbi dago hizkuntza txikiek ez dutela etorkizunik.

4. paragrafoa:

- a. Nazioarteko hizkuntzak oztopatu egiten du norberaren hizkuntzaren garapena.
- b. Norberaren hizkuntzaren defentsa azken muturreraino eramateak ekarri du beste hizkuntzen gauza onak baztertzea.
- c. Norberaren hizkuntzari tinko eusteagatik salbatu dira munduko hainbat hizkuntza.
- d. Norberaren hizkuntza gauza guztien ginetik defendatu eta, aldi berean, besteen ekarpenei trabak jartzea da bidea.



5. paragrafoa:

- a. Onena, beti bezala, erdiko bidea hartzea da. Horrek salbatuko gaitu.
- b. Kultura eta hizkuntza guztiak beharrezkoak dira mundu honetan.
- c. Kanpoko kultura eta hizkuntzen alde onuragarriak egokitu eta hartu behar ditugu. Horrek salbatuko gaitu.
- d. Kanpoko kultura eta hizkuntzen alde ona gureganatzea eta, aldi berean, gurea landu eta aberastea da bidea.

6. paragrafoa:

- a. Euskaldunok belaunaldiz belaunaldi landu dugu euskara eta euskal kultura, gainerako komunitatei ekarpenak eginez.
- b. Euskara eta euskal kultura lantzea ez da aski, besteen ekarpenak ere kontuan hartu behar ditugu.
- c. Euskararen etorkizuna ziurtaturik dago, milaka eta milaka urte baitarama bizirik.
- d. Euskara, salbatuko bada, geureari eutsi behar diogu gauza guztien gainetik.

2.- Zein izan da idazlearen helburu nagusia testua idaztean? Bakarra biribildu. (1)

- a) Irakurleari munduko hizkuntzen bilakaera xumea azaltzea.
- b) Gaur egun kulturekin eta hizkuntzekin zer gertatzen ari den labur deskribatzea.
- c) Hizkuntza txikiek, ez desagertzeko, hiru irtenbide dituztela argitzea.
- d) Egun ingelerak nazioarte mailan zein garrantzia duen argi uztea.
- e) Euskaldunoi argitzea gure kulturaren eta hizkuntzaren biziraupenerako zein den bidea.

3.- Eta, beraz, zein testu tipo da garrantzitsuena testu honetan? (0,5)

Bakarra biribildu:

AZALPENA, NARRAZIOA, DESKRIPZIOA, INSTRUKZIOA, ARGUDIOA

**4.- Testu honek 3 atal nagusi ditu: (0,5)**

(A) Hasierako egoera (B) Garapena (C) Bukaera

Lotu atal horietako bakoitza ondorengo adierazpenekin:

- Hizkuntza komunitateek egoera honi aurre egiteko zein hiru irtenbide dituzten adierazten zaigu. ()
- Ama-hizkuntzaz gainera, nazioarteko hizkuntza beharrezkoa dela adierazten zaigu. ()
- Euskaldunok tarteko bideari heldu behar diogula adierazten zaigu. ()

5.- Testuko hitz hauen sinonimo bana eman: (0,5)

ZABALTZEN:

BAZTERTU:

SUSTRAIAK :

ATEAK ITXI :

FUNTZIO:

6.- Testuko hitz atzizkidun/aurrizkidun hauek kontuan hartuz, sortu hiruna hitz gehiago aurrizki/atzizki berberarekin, adibidean bezala: (0,5)

ANIZTASUN: batasun, askatasun, maitasun,...

EKARPEN:

BEREZIKI:

KOMUNIKAZIO :

DESAGERTU:

BELAUNALDI:



7.- Aldaketa morfosintaktikoak eginez berridatzi honako esaldiak esanahia aldatu gabe; eta zehaztu zein motatakoa den esaldi bakoitza, adibidean bezala: (1p)

(kontzesiboa, baldintza, kausala, denborazkoa, erlatibozkoa, **moduzkoa**)

*Baina bizitzako hainbat arlotan **bezala**, egokiena erdiko bidea litzateke.
(*moduzkoa*)*

Baina bizitzako beste arlotan gertatzen den moduan, egokiena erdiko bidea litzateke.

- Fenomeno honek komunikazioa **errazten badu ere**, ondorio kaltegarriak sor ditzake. ()
- Ingelera gurean sartzeko modua **zaindu ezean**, ondorio kaltegarriak sor daitezke. ()
- Gure hizkuntza lantzen jarraitu behar dugu, kultura eta hizkuntza guztiek leku eta funtzio bat **baitute** mundu honetan. ()
- Ingelera, azken hamarkada hauetan izugarri **zabaldu den hizkuntza**, ezinbestekoa da nazioartean. ()
- Kulturen arteko errespetua barneratzen ez **dugun bitartean**, hizkuntza asko arriskuan egongo dira. ()



8.- IDAZLANA: 200 hitz inguru erabiliz ondorengo galderari erantzun (iritzi artikulua): **Zure ustez euskarak ba al du etorkizunik?** (5p)

Hona hemen hainbat ideia solte gai horren alde edo kontrako iritzia garatzeko :

- Euskarak duen hiztun kopurua.
- Teknologia mailan euskarak egin dituen aurrerapenak.
- Arrazoi historikoak.
- Euskaldunon borondatea.
- Euskarak gure gizartean duen alderdi praktikoa.
- “Ekologia” (errespetu) arrazoiak.
- ...

Idea horiez gainera, norberari bururatzen zaizkionak ere erabil daitezke.



MALDITO SELFI.

Hasta hoy, lo has estado escribiendo empeñosamente en su grafía inglesa, para marcar que es una palabra ajena, una forma perezosa y antiestética de decir en castellano lo que siempre se llamó autorretrato y ahora, para marcar el hecho de que ya casi nadie pinta y todos tienen cámara, podría llamarse autofoto. Sin embargo, la fuerza de los acontecimientos y la pujanza pertinaz del palabro te empujan a capitular: selfi dice todo el mundo y, lo peor, como lo que dice acaba ahormando (ajustando, moldeando) lo que se piensa, este es el concepto, la idea, que acampa por doquier.

Selfi es la actividad diaria de muchos de tus congéneres. Selfi es el producto hacia el que puede orientarse tu existencia, como no estés atento y vigilante de ti mismo para impedir que la exposición recorte terreno a la observación y la reflexión. No has apuntado nunca tu cámara contra ti mismo, salvo en alguna foto familiar o alguna coyuntura (situación) excepcional, y casi nunca has dejado que esos contactos selfis salgan de la memoria de tu teléfono. Pero hay otra clase de selfis, no necesariamente en forma de imagen: discursos que más que versar sobre algo son una manera, consciente o inconsciente, de mostrarse uno mismo al mundo: una exhibición más que afirmación o pensamiento.

Ya te gustaría poder declararte inocente de ese delito. Nadie que hoy viva y esté medianamente conectado y comunicado ha dejado de cometerlo alguna vez. Cultivas, pese a todo, el recelo: la firme decisión de no incurrir en él en la medida de lo imposible. No esperas que hacerte selfis sea la forma de ganar en el aprecio ajeno y en el tuyo propio. Como mucho, un acto dudoso que sólo puede aceptarse bajo circunstancias particulares y con finalidades igualmente singulares y extraordinarias, que conviene someter a una implacable crítica.

Para entenderlo, basta con echar una ojeada a un par de casos recientes. Te ha sobrecogido el suicidio por ahorcamiento de una chica de 27 años, con toda la vida por delante. Era lo que ahora llaman una influencer, alguien que había llevado el arte del selfi al extremo de asentar en él su sustento y su existencia extrema. Le pagaban 500 euros por alguna de sus autofotos (perdón, selfis), que podía preparar durante horas y que colgaba con fruición en su red social favorita para trasladar a sus jóvenes seguidoras, la mayoría menores de edad, la percepción de una vida ideal.

Una vida que todas esas chicas se morían por poder imitar y que la influencer se moría, y murió, por no poder abandonar. La obsesión de salir perfecta en esos píxeles que ahora la atestiguan de forma inquietante no le dejó tiempo para hallar algo a lo que mirar, fuera de sí misma, que la salvara del pozo negro que la reclamaba. Como nos reclama a todos, salvo que acertemos a construir un suelo vital en otra parte.

Lorenzo Silva.

**EXAMEN:****1ª PREGUNTA (1pto.):**

-DETERMINA EL TEMA DEL TEXTO.

2ª PREGUNTA (1pto.):

- INDICA:

-La tipología textual (0,5ptos.).

-El género textual (0,5ptos.).

3ª PREGUNTA (1pto.):

-3A) EXTRAER DEL TEXTO, AL MENOS, UN EJEMPLO DE:

-Extranjerismo.

-Palabra derivada.

-Metáfora.

- 3B) ¿Qué lenguaje es el que domina en el texto, denotativo o connotativo?

4ª PREGUNTA (1pto.):

-4A) ESCRIBE AL MENOS UN EJEMPLO QUE APAREZCA EN EL TEXTO DE (0,5ptos.):

-Antonimia (antónimos).

-Sinonimia (sinónimos).

-4B) ESCRIBE DE OTRA MANERA, TENIENDO EN CUENTA SU UBICACIÓN EN EL TEXTO, LA SIGUIENTE ORACIÓN: “salvo que acertemos a construir un suelo vital en otra parte” (0,5ptos.).

5ª PREGUNTA (1pto.):

5A) INDICA A QUÉ CATEGORÍA GRAMATICAL (sustantivos, adjetivos, etc.) PERTENECEN LOS SIGUIENTES VOCABLOS, (0,5ptos.):

-Actividad.

-Ahora.

-Perezosa.





5B) SEÑALA LA CONJUGACIÓN, PERSONA, TIEMPO, MODO Y VOZ, DE LOS SIGUIENTES VERBOS (0,5ptos.):

-Dice.

-Ha sobrecogido

-Pagaban.

6ª PREGUNTA (5ptos.):

ARGUMENTA O EXPLICA, EN 20-30 LÍNEAS, TU OPINIÓN ACERCA DE LO QUE HAS LEÍDO.

(Ten en cuenta que se valora la coherencia y cohesión de ideas, así como, la corrección ortográfica).

